

BENETAN MAITE NAUZU?



BABESLEAK



KOADRILLAREKIN

O LAGUN-KOADRILAREKIN BERBETAN ZABILTZALA, ZUENGANA PERTSONA BAT HURRERATU DA ETA "HOLA, ¿QUÉ TAL?"

- A** "Badakizu euskeraz?"
erantzungo diot, horren arabera euskaraz edo erdaraz jarraituko dut.
- B** "Muy bien" erantzungo diot, berak erdaraz egin badigu, neuk ere bai.
- C** "Oso ondo" erantzungo diot, euskalduna den ez badakit ere.

TABERNAN

2

TABERNAN ZERBITZARI BERRIA DAGO,
KANPOTAR ITXURA DAUKA. ZELAN
ESKATUKO DIOZU KAFAA?

- A** Berak berba egiten didan
hizkuntzan.
- B** Nola jakingo du ba euskaraz,
kanpotarra da-eta! "Un café
con leche por favor".
- C** "Kafesne bat, mesedez".

BATZARRETAN

BATZAR BATEAN DENOK EUSKARAZ ZABILTZATE, ETA AZKEN SARTU DENAK ESATEN DU "¿PODÉIS HABLAR EN CASTELLANO? ASÍ NO SE ENTIENDE NADA"

- A "Como la mayoría entendemos euskera, hablaremos en euskera y haremos un resumen en castellano de la información principal" erantzungo diot.
- B "Todo lo que digamos en euskera lo repetiremos en castellano" erantzungo diot.
- C "Sí, tienes razón, vamos a hacer la reunión en castellano, así será mucho más fácil", erantzungo diot.

3

BANKETXEAN

4

**BANKETXEA ZABALDU DUTE BERMEON
ETA BERTAKO LANGILEAK DIOTSU:
GURA DUZU GURE MAILEGUEN BERRI IZATEA?"**

- A** "¿Qué es eso de mailegua?"
¿Me lo puedes explicar en castellano, por favor?
erantzungo diot.
- B** "Bai, bai" mailegu berba ez dut ezagutzen baina
euskaraz badakit eta horrela berba berri bat ulertzeko
kapaz izango naiz.
- C** "Baina, baina zer da mailegua?
Zure euskara ulertzerik ez dago" erantzungo diot.

TELEFONUZ

TELEFONUZ DEITU DIZUTE MUGIKORRERA, TELEFONO-ZENBAKIA EZ DA EZAGUNA

- A** “¿Digame?” ziurrenik ez da bermeotarra izango eta bermeotarra izanda ere, erderaz hobeto.
- B** “Bai, ¿Quién eres?” Erantzungo dut: erdalduna bada ere esaten dudan guztia ulertuko du horrela.
- C** “Bai, esan?” erantzungo dut: nik euskaraz hartzen dut telefonoa beti.



5

ETXEKO LANETAN

6

UMEARI ETXEKO LANAK EGITEN LAGUNTZEN ZABILTZA. BARIKUA BERBA ESATERAKOAN, UMEAK ESATEN DIZU "EZ DA BARIKUA ESATEN, OSTIRALA BAINO"

- A "Bermeon ostirala barikua da. Bi berbak erabili ahal dituzu" erantzungo diot.
- B "Arrazoi duzu, ostirala barikua baino askoz hobeto. Neuri ez zizkidaten eskolan horrelako berba politak irakatsi ..." erantzungo diot
- C Nire euskara ez denez batere ona, umeari erdaraz egingo diot, horrela ez dit burlarik egingo "barikua, ostirala qué más da, viernes, viernes!"

EUSKARA IKASTEN

**EUSKARA IKASTEN ARI ZARA.
KALEAN, OINEZ ZOAZELA GALDETZEN
DIZUTE "ORDURIK BADAUKAZU?"**



- A** Ez dakit orduak nola esaten diren, beraz, erlojua erakutsiko diot berak zein ordu den ikus dezan.
- B** "Las dos y media" erantzungo diot.
- C** Ez nago ziur horrela esaten den baina "biak eta erdi" esango diot.

MEDIKUARENEN

MEDIKUARENGANA JOAN ZARA ETA BERA EUSKALDUNA BADA ERE ERDARAZ HASI ZAIZU AZALPENAK EMATEN: "CREO QUE TIENES UN PROBLEMA GASTROINTESTINAL"

- A** "Eta zer egingo dut arazoa konpontzeko?" erantzungo diot.
- B** Isilik geratu eta jarraian zer esaten duen entzungo dut.
- C** "¿Y qué puedo hacer para solucionarlo?". Osasuna jokoan dagoenean oso ondo ulertu behar da esan nahi dizutena.



KALEAN

9

KALEAN EUSKARA BATUAN ETA ERDARAZ IDATZITA DAGOEN KARTEL BAT TOPATU DUZU.

- A** Euskarazkoa irakurtzen ahaleginduko naiz eta berbaren bat ulertzen ez badut, erdarazko testura salto egingo dut.
- B** Euskarazkoa irakurriko dut, ziur ulertuko dudala!
- C** Ez dut denborarik galduko eta erdarazkoa irakurriko dut, hori ulertzea erraz-erraza izango da!

PARKEAN

10

LAMERAKO PARKEAN ESERITA ZAUDE LAGUN BATZUEKIN BERBA EGITEN, ETA UMEAK GAZTELANIAZ ENTZUTEN DITUZU.

- A Bada, ondo. Gustura dabilta erdaraz olgetan.
- B "Ume!, egin euskeraz". Eta lagunari: "como te decía, mañana empiezan las clases de piano...."
- C "Honeek umeok!". Gurasook beti-beti egiten dugu euskaraz, eta zergatik egingo ote dute erdaraz! "Ume!, egin euskeraz!" esango diot.



- 1 A=2 B=1 C=3
- 2 A=2 B=1 C=3
- 3 A=3 B=2 C=1
- 4 A=1 B=3 C=2
- 5 A=1 B=2 C=3
- 6 A=3 B=2 C=1
- 7 A=2 B=1 C=3
- 8 A=3 B=2 C=1
- 9 A=2 B=3 C=1
- 10 A=1 B=2 C=3

GUZTIRA



ZEIN DA ZURE JARRERA?

26-30 PUNTU

AHOLKUA:

*Zu bai maitekorra, neuk ere asko maite zaitut!
Segi horrela!*

Euskalduna naiz eta harro nago...

Euskaldun izateaz harro zaude, euskara normaltasunez eta beti erabiltzen duzu edozein egoeraren aurrean. Euskara jakitea eta erabiltzea oso aberasgarria dela uste duzu.

16-25 PUNTU

AHOLKUA:

*Maitalea baduzu be, izan zaitez nirekin fidela.
Bikoteak, hirukoteak, laukoteak... onartzen ditut.*

Euskaraz bai baina...

Euskaraz egingo zenuke inork aurpegi txarrik jartzen ez badizu edo egoera batzuen aurrean deseroso sentituko ez bazara.

10-15 PUNTU

AHOLKUA:

*Maitasun istorio politenak indiferentziatik
sortzen dira. Laztandu nazazu!*

Denok ulertzen dugu erdaraz...

Zalantza txikienaren aurrean nahiago duzu beti hizkuntza aldatu (erdarara jo). Zeure burua euskaldun gisa ukatzeko prest zaude.